

LAN TALDEAREN BILERA

DATA: 2025-07-07

BILERA ZENBAKIA: 7

ORDUA ETA LEKUA: 18:30 Itsasondoko udala

PARTEHARTZAILEAK: Elena (Udal zinegotzia), Bihotza (Gizarte Langilea) eta Maider.

EGINDAKO LANAREN LABURPENA

LANDUTAKO GAI ORDENA


Bileran hiru gai landu dira batik bat, harrera eguna, elkarteen elkartea eta bigarren eskuko watsap/telegram taldea.

Harrera eguna:

Balorazio orokorra positiboa da. Urtero ezberdina da harrera eguna, adibidez asistentzia baloratu gero. Errepikatzeko moduko ekintza bat dela baloratu dute parte hartzaileek. Lehenengo aldiz Euskal Herriari buruzko diskurtsoa gehitu dugu, baita kulturartekotasunari buruz ere, eta balorazio positiboa egin dugu. Harrera eguna bukatzeko balorazio orri bat betearazten diegu eta, agian, sistema errezago bat ezartzea adostu dugu. Aurrera begira eta harrera protokoloan garatuz gero, "enbaxadoreen" lana urtean zehar lehenengo harrera egitea izango da eta gonbidapen zuzenak egingo dituzte (orain arte Bihotzak egin ditu). Hitzordua gogorarazteko, hurrengo urteetan, gonbidapen formala egitea proposatu dugu, formato erakargarri baten. Beste proposamen bat, harrera egunean bertan jaietako zapia banatzea izan da. Ongizate aldizkarirako elkarriketa laburra egiteaz arduratzen dela aprobetxatuz, zenbait galdera aldatzea eta begirada antiarrazista txertatzea litzateke, Emaginen laguntzarekin adibidez. Harrera eguneko prestaketa lanak egiterakoan aurreko urteko balorazioa presente edukitzea gomendagarritzat jotzen dugu. Eta gidan behar diren aldaketak txertatzea komeni da, adibidez markesinetan jarri genuen mapa.

Harrera protokoloa garatzeko beharko genukeen aurrekontua zehaztu behar dugu, eta bertan arlo ezberdinak landuko genituzke: gida, harrera faseak, enbaxadoreak...

Ordizian harrera gida dute eta instituzio publikoko dirulaguntza jasotzen dute. Honen inguruko informazio gehiago edukitzeko bertako arduradunari galdetzea adostu dugu (Ainara).



Elkarteen Elkartea:

Ongizate taldean eskuartean ditugun proiektuak ikusita eta zenbat kidek osatzen dugun baloraturik, bi urtetan zehar egiteko moduko lana dela aurreikusi dugu. Talde motorra osatu beharko genuke eta, era horretan, ongizateko hileko bileretako gai bat ez litzateke beti izango elkartearena, talde motorrak bere baitan hartuko luke martxa eta talde horretako ordezkari batek, gai ordenean hala deituta dagoenean, martxaren berri emango luke.

Bigarren eskuko watsap/telegram taldea:

Ataunen talde bat sortu zuten, bigarren eskuko watsat talde bat. Bertan, adibidez, erabiltzaile batek iragarki bat idazten du bere liburu bat eskeiniz, prezioa jarrita edo doakoa dela adieraziz eta norbaiti interesatzen bazaio horrela adieraten du eta, momentu horretatik aurrera elkarrizketa pribatu bat izaten dute. Herritar berri batek taldean sartzerakoan, argibideekin mezua jasotzen du.

Otsotruk du izena Ataungo talde honek eta horrelako talde bat Itsasondo egitea baloratu dugu. Kontaktuan jarriko gara eta balorazioa eta "kopiatzeko" baimena eskatuko diegu. Gurean telegram taldea sortuko genuke.

Bestelakoak:

Hurrengo bilerako gai proposamena: bizikleta koordinazioa nola sortu. Eskola, bizikleta elkarte eta ongizate.

ETXEKO- LANAK	NOIZKO?	ZEINEK?
Harrera protokoloa		Maidar
Otsotruk		Maidar
Ordiziko harrera gida		Maidar
Gidako aldaketak Erkudeni jakinarazi		Maidar
HURRENGO BILERA		
Hurrengo bilera: irailaren 8an, 17:30etan, udaletxeko bigarren solairuko bilera gelan.		